



Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2014ko irailak 19ko bileraren ondorio nagusien sintesia

- **Honako puntuen berri eman da:** 1.1. Zaratari buruzko prestakuntza jardunaldia, BFA; 1.2. 2014ko bigarren kuota; 1.3. letaLPSren laguntzak, garapen iraunkorra sustatzen duten ekintzetarako; 1.4. Osasun Sailaren laguntzak; 1.5. Irisgarritasunerako diru-laguntzak; 1.6. EEEren diru-laguntzak; 1.7. Paper ekonaturalerako euskarriak; 1.8. Hondakin organikoaren bilketari buruzko Informazio Plana; 1.9. Ekologistak Martxan-ekin kolaboratzeko eskaintza; 1.10. Udalsarea 21en batzorde tekniko Galdakaon, urriaren 10ean; 1.11. Ekosistema hezeetako eta ibaietako fauna eta flora autoktonoak hobetzeko ekintzen proiektua; 1.12 Faktura elektrikoa optimizatzeko proiektua; 1.13 Aktibatu zaitez +.
- **Kontratua: Hondakin organikoaren bilketarako hornidurak:** lehiaketaren emaitzen eta behin-behineko esleipendunen berri eman da.
- **Kontratua: Hondakin organikoak bildu eta garraiatzeko zerbitzua:** lehiaketaren egoerari eta zerbitzua martxan jartzeko aurreikuspenari buruzko informazioa eman da.
- **Lehiaketa publikoa: Hondakinak biltzeko kontratuak batertzeko laguntza tekniko:** aurretiaz bidalitako pleguak baliozkotu dira, eta horiek argitaratzea erabaki da.
- **Lehiaketa publikoa: Abandonatutako animaliak biltzeko zerbitzua:** Galdakaoko Udalaren ekarpenen berri eman da. Batzordearen bilera monografikoa antolatzen da gai honi buruz. Bilera urriaren 1ean (asteazkena) izango da, 09:00etan.
- **Eskola Agenda 21:** 2013-2014 ikasturteko memoriak entregatu dira. Programaren dinamizatorako aholkularitza tekniko 19.602 euroan (16.200 + BEZ) Ondoan S.Coop.i kontratatu zaiola jakinarazi da. Era berean, 2014-2015 ikasturteari dagokionez ikastetxeekin koordinaziorako lehenengo bilera egin dela jakinarazi da. Gaia honakoa da: "Murriztu, berrerabili, birziklatu".
- **Berringurumena 2014:** Oniritzia eman zaio eskualdeko "Smart City" estrategia definitzeko eta bere teknologiak Tokiko Agenda 21 hobetu eta bultzatzeko xedez aplikatzeko proposamena garatzeari.
- **Lankidetzaren protokoloa URArekin:** balorazioa eta erabakia urriaren 23an izango den bileran egingo dira.
- **Lankidetzaren hitzarmena Ambilampekin:** hurrengo bileran, lanparen bilketarako hitzarmenean eta eskualde mailako zerbitzuan parte hartzeko interesa duten adierazi beharko dute udalek. Udal luminariak biltzeko hitzarmenak banan-banan sinatu beharko dituzte udalek Ambilampekin.
- **2015eko Kudeaketa Planaren aurrerapena:** Egutegia: urriaren 17ra arte, udalen ekarpenak Eskualdeko Bulegoari; urriaren 23an, zirriborroaren aurkezpena;



azaroaren 20an, onarpena; ondoren, kuoten eskaerak bidaliko dira, sarrerak 2015eko urtarrilean egiteko.

- **Batzordearen hurrengo bilerak:** urriak 1an, monografikoa asteazkena, animalien bilketa zerbitzuari buruz, 9:00etatik 10:00ak arte; eta urriak 23, biak osteguna, ohikoa, 9:00etatik 11:00ak arte.